

ELORRETA

XVIII. mendeko bi baserri ditugu hauek, biak izen berekoak, baina "Goikoa" eta "Behekoa" ezarrita atzetik ezberdinak, beren kokapenaren arabera. "Elorreta" hitzaren esanahia "elorri askoko lekua" da, zuhaitz mota hau ugaria baitzen kokaleku horretan.

KOKALEKUA:

Biak Urko mendiaren tontorrerako bidean kokatuak egongo dira, kokaleku estrategiko batean, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mugan (baserrietako batek, Behekoa, Gipuzkoan izango ditu beren lurren zati bat; gero ikusiko dugun moduan, kontrabandorako aprobeixatuko zutelarik egoera hau).

EZAUGARRI AMANKOMUNAK:

Bizkaiko baserri tipikoaren eredu, ezaugarri ugari izango dituzte amankomunean: Biek XVIII. mendeko ezaugarri estilistikoak izango dituzte, nahiz eta dokumentazioak adierazten digun askozaz lehenagokoak direla, Elorreta Behekoa 1372an agertuz lehen aldiz dokumentuetan, eta Goikoa berriz 1595ean.

Eraikuntzako materialei dagokienean berriz, biak inguruko materialekin eraikiak izango ziren, inguruko harrobietako harriekin, eta teilak ere, inguruan egindakoak izango dira. Bietan estruktura harrizkoa izango da, eta paretan harlanduzkoak izango dira, dintelekin leihoetan.

Bi baserrietan erdi puntuko arku bat duen arkupe bat izango dugu, harlanduzko dobelekin inguruan, eta inpostekin amaieran. Arkupe honek baserriko sarrera moduko bat osatuko zuen. Arku honen helburua etxearen egitura sendotzea zen, balkoien eraikitzea baimenduz horrela, baserriko bizi kalitatea hobetzen zuena. Gainera, almazen bezala ere balioko zuen, laneko tresnak gordetzeko, eta bilgune moduan ere bai, udan. Egitura hau ohikoa izango zen Bizkaian, Euskal Herriko beste leku batzuetan garrantzia galtzen bazen ere XVIII. mendean zehar, hemen mantendu egingo baitzen. Honen barruan, bi baserri hauen berezitasuna arkua alde batean izatea izango da, kasu bakarrak izanik Bizkaian. Eraikuntza eredu honen eraikitzeo zailtasunak harrobietako eraikuntza maisuak kontratatzea eskatuko zuen, bakarrik baserriar aberatsenek ordaindu zezaketena.

Barnealdeari ekinez, bi baserriek izango zuten aukera sutondo bat izateko, harrizko estruktura izateari esker, (izan ere, XVI eta XVII. mendeetan baserri askok sua paretetatik aldentuta izan behar izaten zuten, egurrezko estruktura zutenez, erraztasun handiz su har zezakeelako etxeak).

Ez bata ez besteak ez du armarririk izango, hau esplikatzeo teoria geroago sakonduko dugularik, momentuz esanez jabeak ez zirela bertan biziko ziur aski, eta alokatutako baserriak izango zirela.

ELORRETABEKOA:



Lehen aipatu dugun moduan, bere lehenengo agerpena dokumentazioan 1372an izango zen, nahiz eta bere ezaugarri estilistikoak erabat XVIII. mendekoak izan, eta horregatik uste dugu mende horretan erabat eraberritua izango zela.

ERAIKUNTZAREN KANPOALDEKO ANALISIA:

Bere eraikuntzako materialak merkeak izango ziren, nahiz eta erdi puntuko arkuak, alde batean eraikiak, bere eraikuntza ez zela erraza izango adierazten digun. Bi aldeko teilatuarekin, harlangaitzekoa izango da baserria, balkoi txiki batekin eraikuntzaren erdiko leiho zuloan, eta dintelak behealdeko leihoetan.

JABEAK:

Bere antzinasuna dela eta, ez dakigu zeintzuk izango ziren bere jatorrizko jabeak, baina geroagoko batzuk aurkitu ahal izan ditugu dokumentazioan. Horrela, Lobianotarrek "Elorreta" izeneko baserri bat utzi zietela monjei oinordekotzan ikus dezakegu, nahiz eta ez dakigun Goikoa edo Behekoa zen, ez baitute espezifikatzen. Monja hauek, zorrez beteak, Peñafloredako Kondeari salduko zioten 1794an, Manuel de Izaguirre izeneko gizon bati alokatu ziolarik honek. Ohikoa izango zen garaian noble batek baserri bat erostea, XVIII. mendean baserrien salerosketa negozio ona izango baitzen, aberatsen artean asko ematen zena. Horrela, familiaren ondarea handituko zuten, errenta bat kobratzeaz gain, demografia hazkundera zegoen une batean, eta beraz, baserrien alokairuaren prezioa ere bai, merkatuaren eskaeraren aurrean. Lurraren gaineko prezioa horrenbestekoa izan zen urte haietan, denbora gutxiren buruan lur haietako asko lugorritu egin zirela, edo oso gutxi produzitzen hasi zirela. Gainera, XIX. mendean zehar, industrializazio prozesuaren ondorioz Bilbo inguruan, baserrien eskaera asko jaitsiko zen, baserri asko hutsik geratze arte, eta beraz, aberatsek interesa galduko zuten hauen salerosketa negozioan.

BERTAN GERTATUTAKOAK:

Baserri honetatik gertu Olaerreako katea egongo zen; XIX. mendean ezarritako katea, probintzien arteko muga markatzen zuena, eta zergak ordaintzeko puntu ere bazena, zerbait beste probintziara pasa nahi ezker. Elorreta Behekoak zenbait lur izango zituen Gipuzkoan, baina baserria bera Bizkaian egongo zen, estraperlorako puntu egokia bihurtuz modu honetan. Kontrabandorako leku bezala erabiliko zuten horrela denbora luzez, baserriaren jabeen edo alokairuan zeudenen laguntzarekin.

EGUNGO EGOERA:

Baserria, nahiz eta oso eraberritua egon, zutik dago oraindik ere, eta originalaren oinarriko ezaugarriak gordetzen ditu (nahiz eta leiho zuloetako dintelak esaterako ez mantendu).

ELORRETAGOIKOA:



Elorreta Goikoa ere herriko eraikinik zaharrenetako bat izango da, baina Behekoarekin baino are informazio gutxiago dugu honekin, eta ez dugu bere eraikuntza data zehatza ezagutzen, bakarrik jatorriz ez zela XVIII. mendekoa izango, baizik eta lehenagokoa, eta 1595erako dokumentazioan agertzen dela Behekoarekin batera.

ERAIKINAREN KANPOALDEKO ANALISIA:

Harlangaitzekoa izango da, bi aldedun teilatuarekin. Dintelak izango ditu leiho zuloetan honek ere, gaur egun oraindik kontserbatuko direnak, arkupearen moduan.

JABEAK:

Jakina da Peñafloidako kondea Elorretetako baten jabea den garai berean, Santa Cruzeko Markesa bestearen jabea zela, nahiz eta ez dakigun zein zen ze baserriren jabea. Biek baserria hirugarren bati alokatuko zioten.

BERTAKO GERTAERAK:

Espainiako Gerra Zibilean fronte frankistak zazpi hilabete emango zituen hemen, baserri honek markatzen zuelarik muga, Bizkaia menpean hartu arte 1937ko uztailan.

BIBLIOGRAFIA:

- Aranberri, F. (2001) *“Ermua- Eitzaga Leku-lzenak. Geure izanaren barrena”*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Pinedo, J.A (1996) *“Ermua, Mallabia eta Zaldibar. Bizkaiko Herrien Monografiak”*. Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia.

KOLABORATZAILEAK:

- Fernando Aranberri
- Ricardo Carro
- Hector Izaguirre
- Myriam Sierra

EGILEA:

Maddalen Zabaleta